



Xanti Agirrezabala

Sambou Diaby

Telmo Irureta

Maider Lasa

Luix Mitxelena

ZARATA

Irene Mujika

Kimetz Renteria

Asier Rikarte

Nahia Sillero

Garazi Urkola

Hodei Arrastoaren LGBTI+ kolektiboari buruzko audiogida



Audioguía de Hodei Arrastoa sobre el colectivo LGBTI+



Egin ezazu **ZARATA**,
zarena zara 'ta.



aurkezpen gutuna

Duela gutxi ezagun bati zera galdetu nion: ba al dakizu LGBTI+ kolektiboaren parte direnen artean heterosexualak ere badirela?

Harrituta begiratu zidan.


LGBTI+ kolektiboarekiko dugun ikuspegia oso murriztua da. Lesbiana, gay eta pertsona transek osatzen duten talde gisa ikusi ohi da soilik, baina badira beste hainbat pertsona talde horren parte direnak eta ikusgarritasun gutxi ematen zaienak.

ZARATAren parte garenok ez gara maisuak, ez dugu egia absoluturik azaldu nahi. LGBTI+ kolektiboaren parte garen norbanakoak gara soilik eta gure bizipenak eta istorioak duintasunez azaldu nahi dizkiegu euskal herritarrei, ezjakintasunak dakartzan tabuek sorrarazten dizkiguten egoera deserosoei aurre eginez. Galdera mordoa egin eta erantzun gutxi batzuk emango ditugu.

Oraindik lan handia daukagu gizarte inklusibo bat izatera iristeko eta ZARATA proiektuak bide horretan aurrepauso bat izan nahi du.

Anima zaitezte, [beraz](#), entzutera eta ikastera.

Hodei Arrastoa



ZARATA proiektuan
lehentasuna ez du ~~ikusmenak~~,
entzumenak baizik.



proiektua

ZARATA audiogida bat da.


Audiogida kontzeptua ez zaigu, izatez, arrotza egiten. Gaur egun makina bat museotan erabiltzen ditugu aurikularrak margolan edota eskultura batzuei buruzko informazio gehigarria ematen digun ahots bat entzuten dugularik.

ZARATA proiektuak aurkezten duen proposamena, ordea, apur bat ezberdina da.

Museo arrunt batean, begiekin ikusten den artelanak du protagonismoa eta belarritik entzuten denak informazio gehigarri bat ematen du ikusten ari den artelan horren inguruan.

ZARATA proiektuan protagonismoa entzumenari ematen zaio. Horrela, parte-hartzaileak estimulu nagusia belarritik jasotzen du eta aurrean dituen estimulu bisualek (irudiak, argazkiak, berriak...) entzuten ari den horri buruzko informazio gehigarria ematen diote.

Ikusmenak, entzumenetik jasotzen dena barneratzen laguntzen dio parte-hartzaileari.



proiektua

ZARATA proiektuak LGBTI+ kolektiboaren inguruan kontzientzia sortzea du helburu. Ez-ohiko formatua duenez, hemen azalpenak:

Kasko edota aurikularren bitartez audio bat entzungo du parte-hartzaileak. Audio horretan zehar LGBTI+ kolektiboaren parte diren hamar euskal artistaren ahotsak entzungo ditu. Artista bakoitzak istorio ezberdin bat azalduko dio belarrira parte-hartzaileari. Istorioak poetikoak, politikoak, fikziozkoak... izango dira. Amankomunean duten gauza bakarra zera da, LGBTI+ kolektiboaren inguruko hausnarketa bat egitera bultzatzen dutela guztiek. Artista horien ahotsez gain, parte-hartzaileak nora joan eta zer egin behar duen azalduko dion gidari baten ahotsa ere entzungo du.

Audioak dakarren mezua jendeari errazago iristarazteko, proposamen bisualak ere izango dira: irudiak, berriak, argazkiak...

Audioa entzuten ari den bitartean, gidariak hamar geldialdiko ibilalditxo bat eginaraziko dio parte-hartzaileari. Geldialdi horietako bakoitzean entzuten ari den istoriarekin zerikusia duen estimulu bisual bat izango du. Beraz, istorio bakoitza gune ezberdin batean entzungo da. Hamar istorio, hamar gune.

Esperientzia indibiduala da, bakoitzak nahi duen unean has dezake ibilbidea. Horrela jende pilaketak ekidiko dira eta esperientzia lasaiago egiteko aukera emango dio parte-hartzaile bakoitzari. Mekanismo honi esker, norbait esperientzia amaitzen ari den bitartean beste norbait esperientziaren hasieran egongo da.



funtziona. .mendua

ZARATA proiektuak ez du beti espazio konkretu bera behar, herri bakoitzak eskaintzen dituen leku ezberdinetan egin daiteke: kultur etxe batean, gela balioanitz batean, esposizio gela batean... herri bakoitzak eskaintzen dituen leku horiek baloratu egingo dira eta egokiena aukeratuko da. Aukeratutako espazioan ibilbide bat diseinatuko da esperientzia ahalik eta modu egokienean egin ahal izateko.

Guztiek ibilbide berbera egingo dute, leku berberean hasita, eta hamar guneetatik orden berberean pasatuko dira. Bi QR kode eskainiko dira: bata, audioa euskaraz dakar, eta besteak, gaztelaniaz. Parte-hartzaileak bere mugikor propioaren bidez nahi duen QR kodea irakurriko du [arazorik balego, antolakuntzak helaraziko lioke artxiboa].

Ibilbidearen hasieran parte-hartzaileak audioari *play* eman eta mugikorra sakelean gordeko du, audio bakar batean baitaude gidariaren argibideak eta hamar istorioak. Horrela, esperientzian zehar mugikorrari begira egon beharra ekidingo da.

Parte-hartzaile bakoitzak bere aurikular propioak ekar ditzake esperientzia erosoago bizitzeko. Hala ere, antolakuntzak hainbat kasko eskuragarri jarriko ditu aurikularrak ekartzen ez dituen jendearentzat.

Esperientziak 45 minutu inguruko iraupena izango du pertsona bakoitzarentzat, baina sarrera hiru orduz egongo da irekia [10h-14h edo 16h-20h]. Horrela, arratsaldean egingo balitz, lehen pertsona 16.00etan sartuko litzateke eta azkena 19.00etan, 19.45etan amaituz.



hodei arrastoa ZARATAre sortzailea

zizurkil, 1995.

Bartzelonako Institut del Teatren antzerki fisikoan graduatua. Teatre Lliuren aktore gisa lan egin du birritan [*Terra Baixa*, 2022; *Flam*, 2019] Roger Bernaten zuzendaritzapean, Escena Abierta eta TNT festibaletan parte hartu du [*Protocolos de acción frente a lo desconocido*, 2019-2020] eta baita Temporada Alta festibalean ere [*La first casi blind date*, 2020], azken hauek Fundación Agrupación Colectivaren eskutik. Zuzendari gisa, iraupen anitzeko lau antzezlan zuzendu ditu [*Ikusi arte*, 2020; *Te callas.*, 2021; *Dancing Bees*, 2022; *Terapia*, 2022].



hiruki larroxa kolaboratzailea



HIRUKI LARROXA jendarte eraldaketarako pentsamendu kritikoa sustatzea bilatzen duen kooperatiba da. Horretarako, gaur egungo jendarte ereduan ematen diren botere harreman asimetrietan eta zapalkuntza sistemetan fokua jartzen du, parekidetasun eta LGBTI+ gaietan formazioa, aholkularitza, ikerketa, bidelaguntza eta proiektu integralak garatuz.

www.hirukilarroxa.eus



telmo irureta [1989]

aktorea - zumaia

Antzerki-ikasketak TAEn burutu zituen. Oholtza gainean *Toquecito minus* eta *Striptease* egin ditu besteak beste. Telebistan ere ikusi dugu, *La que se acerca* telesailean, adibidez. Duela gutxi Fernando Francoren *La consagración de la primavera* filmean hartu du parte. Zuzendari eta gidoilari izana da, eta aurkezle Giza Eskubideen Zinemaldian. Orain *Sexberdinak* antzezlanarekin dabil herriz herri.

luix mitxelena [2001]

aktorea - oiartzun

Dantzertin formatzen darraien aktore zein umorista. Ekitaldi askotan aurkezle eta bakarriketalarari paperak betetzeaz gain, besteak beste, honako antzezlan hauetan hartu du parte: *We are alive* [Marga Altolagirre, 2018], *La ambición* [Sergio Arca, 2019], *Txolarte* [Oier Guillan, 2021], *Animaliak* [Sergio Arca, 2022] eta *Haripiloak* [Oier Guillan, 2022]. EITBko Barre Librea saioan *Intentsito* bakarriketa aurkezteko aukera ere izan zuen.



nahia sallero [2000]

aktorea - donostia

Interpretazioa ikasten ari da Dantzertin. Antzerkia munduan, idatzi, zuzendu eta aktore lanak egin ditu: *Una sábana te vale para todo* [2021] eta *El amor es una mesa de tres patas* [Pabellón 6, 2022]. *Migraaaantesen* [Barlovento Teatro eta P6ko Gazte Konpainia, 2021] parte hartu du baita ere, Bilboko Campos Elíseos Antzokian. Telebista munduan, Pausoka ekoizlearen EITBko *Irabazi arte* [2022] telesailean lan egin du eta bigarren denboraldia grabatzear dago.



kimetz renteria [2002] aktorea - bilbo

Arte eszenikotakotako batxilergoa egin zuen IES Ibarrekolandan eta lau urtez Utopian antzerki eskolan ibili zen. Telebistan, *Bago!az* programan [2019] eta *Go!azen 6.0* [2019] telesailean parte hartu zuen, baita *Goazen etxean* [2020] saioan ere.



garazi urkola [1999] aktorea - villabona

Dantzertin arte dramatikoan graduatua. Hainbat antzezlanetan hartu du parte: Gerard Jonesek zuzendutako Monteverdiren madrigalen adaptazio garaikidean [Arriaga, 2017], *Isiltasunaren haitzuloa* [2019] Euskadiko orkestra sinfonikoarekin elkarlanean eta *Uda gau bateko bidegurutzea* [2021] Mireia Gabilondoren zuzendaritzapean. Zine munduan ere aritu da *Akelarre* [2020] filmean, Pablo Agüerok zuzendua eta hainbat laburmetraietan ere hartu du parte, esaterako, Isa Luenga eta Sofia Esteveren *Perpetua Felicidad* [2021].

irene mujika [1995] musikaria - villabona

Gitarra, teklatura eta trikitixa jotzen baditu ere, azken hau da bere instrumentu nagusia, hamahiru urtetan zehar jaso baitzituen klaseak. Aurreko biak modu autodidaktikoan ikasten dabil oraindik ere. Solfeo eta kantuko klaseak ere jaso ditu, Fitzmaurice Voicework modalitatean, besteak beste. Bartzelonako Unibertsitatean musikoterapiako masterrean graduatua da eta Gordonen teorian hezkuntza musikal goiztiarreko irakasle izateko lehen mailako zertifikatua ere badu. Gaur egun bere abestiak kaleratzeko proiektuan dabil.





taldea



xanti agirrezabala [1997]

aktorea - azpeitia

Dantzertin arte dramatikoan graduatua. Euskal Antzerki Topaketetan aurkezten du *Satiro* [Ikuslegoaren sari berezia], bere lehen bakarkako sormen lana. 2019tik Horman Poster kooperatibaren parte da, bertan burutu ditu *Antigone edo ezetzaren beharra* [Donostia Antzerki Saria, 2021] eta *Souvenir komedia estralurtarra*, adibidez. Ikus entzunezkoetan *Goenkale* eta *Ihesaldia* telesailetan aritu izan da, baita *Korosagasti* luzemetrai eta *Ilunabarrean esan edo Cuerdas* laburmetraietan ere.

sambou diaby [1999]

aktorea - zumaia

TAEn hasi eta bi urte egin ondoren Madrilera Joan zen ikasketekin jarraitzera. Bertan, Estudio Vn interpretazio eta zinea egin zuen eta La Joven compañian entrenamentu aktoralak ere egin zituen. Bere azken formakuntza Bartzelonan izan zen *Africa Moment* proiektuan, non interpretazio eta dantza afrikarrak landu zituen. *Kartzela* websailean lan egin zuen eta *Go!azen* [2016] eta *Altsasu* telesailetan parte hartzeko aukera ere izan zuen. Bere azken lana, *Bost teilatu* filma izan da.



maider lasa [1997]

aktorea - gasteiz

Kantu lirikoko eta arte dramatikoko formazio batetik abiatuta, bere lana ikuspegi holistiko eta diziplina anitzeko ikuspegi batekin zabaltzen du. Txikitatik abesbatza profesional bateko partaide, Gasteizko Jesús Guridi kontserbatorioan hasi zuen musika-prestakuntza, kantu lirikoko ahots-tresnean espezializatuz. Formazio hori antzerkiarekin osatzen du Ortzaiz, Eolia eta Laboratorio eskoletan. Aktore eta abeslari gisa aritu da *Naturaren sekretua*, *Kristall Boheme* eta *Loa loa, laguna* proiektuetan.



taldea

asier rikarte [2000] aktorea - burlata

Hainbat pelikuletan parte hartu du: *Kalebegiak* [Gracia Querejeta, 2016], *Ola de crímenes* [Gracia Querejeta, 2018], *Mañana es hoy* [Nacho G. Velilla, 2022]. Francisco Javier Oyarzunen mezenazgoa jaso zuen 2019-2020ko *Bilaketa* beka artistikoa irabaziz. Performer gisa ere ibili da: *La Voltereta* [Mar Reykjavik, 2020]. Telebistan agertu da identitate ez bitarren ikusgarritasunaren alde *Biba Zuek* eta *Ur Handitan* programetan. Egun, *Kiki House of Anunnaki* kolektiboan dabil ballroom kultura Euskal Herrian hedatzeko helburuarekin.



jon fernandez [1996] soinu teknikaria - irura


Komunikatzailea, filmmaker-a eta eduki digitalen sortzailea da Jon. Gaur egun *Gazteako* sare sozialetan lan egiten du eta bertako irrati esataria ere bada. Ekitaldi ezberdinak aurkeztu izan ditu eta Euskal Telebistako Baserria saioan kolaboratu du.

aharón ferradás [1996] diseinatzaile grafikoa - gasteiz

Batxilergo artistikoa egin zuen Gasteizko Federico Baraibar institutuan eta Bartzelonako IDEP eskolan diseinu grafikoan graduatua da. Zentro berean ilustrazioan posgradua egin zuen eta BAUen Motion Designen ere master bat dauka. Hainbat enpresarentzat egin du lan: *Herraiz Soto & Co.*, *achos!* agency eta *Firma*.


www.aharonferradas.com





**Mintzagai bilakatu behar dugu ezezaguna zaiguna,
elkarrengandik ikas dezagun.**


beharrak




espazio itxi bat



hogeita hamar aulki



proiektore bat *



pantaila bat *

* bi elementu hauek gabe ZARATA proiektua modu berean egin daiteke, baina aurrez komunikatu beharko zaio antolakuntzari.

